

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Astibia Olaiz

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretako Fanderian jaio zen. Errota zegoen bertan eta aita hango lanaz arduratzen zen, ogi-irina eta arto-irina egiteaz alegia; gerora Pasaiaiko portuan ere aritu zen eta Joxe Uranga aroztegian ere bai. Ama Oiartzuarra zuen eta aita Fanderia bertakoa. Jaio eta urte batzuetara, Gabierrotako etxe batera aldatu zen sendi osoa. Lehendabizi, mojekin ibili zen eskolan, Gurutzeko Alabekin; geroago, Aierbe ahizpekin ikasi zuen, izan ere, euskaraz irakasten zuenez, aitik hara bidali zituen. 1936ko gerra hasi zenean, familia guztia Bilbora joan zen: emakumeak eta haurrak itsasontziz eta gizonezkoak beren aldetik. Han bizi zen izeba baten bidez etxe eder batean egoteko aukera izan zuten. Urtebetera herrira bueltatu ziren. Biteri kaleko Garcia jostundegian hasi zen lanean Miren eta handik fabrika handira pasa zen, Lino fabrikara. Bertan ezagutu zuen senarra izango zuena. Ezkondutakoan lantegiko lana utzi zuen. Senarrak Linon jarraitu zuen lanean itxi zen arte, eta gerora Tajon aritu zen erretiroa hartu arte. Ezkonduta Santa Klara kalean jarri ziren bizitzeko eta ordutik han bizi izan dira. Lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ERR-020

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-04-13
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Umetako jolasak

- **Erref:** ERR-020/002
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Umetan beti jostatzen aritzen ziren: txingoka, sokasaltoan, mikoka, marru-marruka... Marru-marruka nola jolasten zuten azaltzen du. Mutil batzuk batzokira joaten ziren, eta han esandakoak gero neskei kontatzen zizkieten.

2. Gerra garaian Bilbora itsasontziz

- **Erref:** ERR-020/004
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean, Bilbora joan ziren, Fanderian bizi ziren gehienak bezalaxe. Bilbora itsasontziz joan ziren eta hondoa jo zuen; Bilbora ezin iritsi egon ziren, baina azkenean ondo iritsi ziren. Bilbon izeba baten etxean bizi izan ziren etxe eder batean; urtebete egon ziren han. Fanderiako beste gazte batzuk Bilbon zer zeregin izan zituzten aipatzen du.

3. Umeek gutxiago sentitu egoeraren larritasuna

- **Erref:** ERR-020/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:09:09. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian, Bilbon egon ziren bitartean, aitak Alde Zaharrean egiten zuen lan. Bilbon zeudela, umeak zirenez, ez zuten hainbeste sentitzen egoeraren larritasuna. Mirenen familiako inork ez zuen gerran zuzenean parte hartu behar izan.

4. Aierbe ahizpekin gustura ikasi zuen

- **Erref:** ERR-020/007
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Gerra hasi aurretik, Aierbe ahizpekin ikasi zuen Mirenek, Dorotearekin hain zuzen ere. Han gustura ikasten zuen, andereño lasaia zen eta euskaraz irakasten zuen. Eskolan arbela erabiltzen zuten. Neskek eta mutilek denek batera ikasten zuten han.

5. Aitak lana topatzeko izandako trabak

- **Erref:** ERR-020/009
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:14:07. **Bukatu:** 00:16:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Lanbideak » Arotzak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Lehen Erreterria herri txikia zen eta denek ezagutzen zuten elkar. Aita lanetik bidali zuten abertzalea izateagatik; orduan Gabierrotako etxe batera joan ziren bizitzera eta aita Pasaiaiko portuan hasi zen noizean behin lanean. Apaizek ez zuten nahi Mirenen aitari inork lana ematerik; azkenean, Joxe Urangak eman zion lana; haren aroztegian aitak zer lan egiten zuen azaltzen du.

6. Mojen gaiztakeriak gogoan

- **Erref:** ERR-020/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:18:19. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Hasieran Mirenek mojekin, Gurutzeko Alabekin, ikasi zuen. Moja haiek oso gaiztoak omen ziren. Gogoan du neskak nola zigortzen zituzten.</p>

7. Liho-fabrikako lan-baldintzak

- **Erref:** ERR-020/016
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:23:56. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Liho fabrika handian zer lan egiten zuten azaltzen du. Lan hura gustuko zuen.

Emakume askok egiten zuen lan fabrika hartan. Lanerako bi txanda zeuden eta igandetan bakarrik izaten zuten jai.

8. Bekaturik gabe ere konfesatu egin behar

- **Erref:** ERR-020/018
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:29:58. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Igandetan musika entzutera joaten ziren, bandak jotzen baitzuen; ez zuten ia dantzatzen, gero konfesatu egin behar izaten zuten eta. Hilero joaten ziren konfesatzera, baina ez zuten bekaturik izaten. Mutilekin dantza eginez gero, apaizek zer esaten zieten aipatzen du.

9. Natura zaintzen eta errespetatzen ondo ikasiak

- **Erref:** ERR-020/025
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:43:26. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Natura » Meteorologia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Beraiek ez ziren txorietan ibiltzen, aita ez baitzien uzten. Loreak ere ez zituzten biltzen, zeuden lekuan hobeto baitzeuden. Umetan ondo erakutsi zieten natura zaintzen eta errespetatzen.

10. Arrain freskoa jaten zuten

- **Erref:** ERR-020/027
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:48:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Fanderian erreka zegoen lehen: mutilek ondo ikasi zuten han igerian; neskek ez hain ondo, ordea. Erreka hartan angulak zeuden. Lehen angulak ez ziren garestiak; arraina oro har merkea zen. Arraina eroatera nora joaten ziren aipatzen du; arrain hura freskoa izaten zen, egunekoa.

11. Lehen izaten zituzten menuak

- **Erref:** ERR-020/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:50:31

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lehen arraina asko jaten zuten, merkea baitzen. Arraina ugariagoa zen lehen itsasoan. Lehen otorduetan barazkiak, babarrunak, salda eta garbantzuak jaten zituzten normalean; igandetan eta ospakizun berezietan menua aldatu egiten zen. Gabonetan oilaskoa jaten zuten. Gerra ostean behin txerria tokatu zitzaien zozketan, eta handik urtebetera jan zuten.

12. Erreterriako merkatu-plaza

- **Erref:** ERR-020/030
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:50:31. **Bukatu:** 00:51:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Lehen ere bazen merkatu-plaza Erreterrian. Baserritarrek jenero asko eta ona saltzen zuten. Baserritarrek astoak non uzten zituzten azaltzen du.

13. Etxeko sagardoa edaten

- **Erref:** ERR-020/032
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:54:20. **Bukatu:** 00:55:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Emakumeak lehen ez ziren tabernatan eta sagardotegietan sartzen. Sagardoa etxean egiten zuten. Egunero pitarra edaten zuten otorduetan; eta horrez gain, sagardoa botilaratu egiten zuten.</p>

14. Baratzeari esker lortutako jeneroa

- **Erref:** ERR-020/034
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:56:12. **Bukatu:** 00:58:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Mirenen familiak baratzea izan zuen; han zer landatzen zuten azaltzen du.

Barazkiez gain, loreak ere landatzen zituzten baserri gehienek. Baratzeko jeneroa etxean jaten zuten; Mireni ez zitzaion aza gustatzen, baina jan egin behar izaten zuen. Ogi zuria jaten zuen, ogi ona.

15. Errazionamendu garaian errotara ezkutuan

- **Erref:** ERR-020/035
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:58:09. **Bukatu:** 00:59:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean gosete handia izan zen, eta errazionamendua iritsi zen. Irina ezkutuan ekartzen zuten errotatik. Ez zituzten inoiz harrapatu, bai baitzekiten nondik ibili. Irin horri esker, taloak egiten zituzten.

16. Gerra ostean, koipea zeukan janaria nahi

- **Erref:** ERR-020/037
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:59:52. **Bukatu:** 01:00:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Gerra ostean, taloa jaten zuten egunero. Osaba-izebek asko lagundu zieten garai hartan, baserritik janaria bidaltzen baitzieten. Janariak grasa izatea nahi izaten zuten, horrela gehiago betetzen baitziren.

17. Arropa ondo zaintzen zuten

- **Erref:** ERR-020/038
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Lehen arropa gutxiago izaten zuten. Gogoan du udako soineko bat: hura ez zikintzeagatik eta ez zimurtzeagatik, ez zen esertzen. Jostunak egiten zituen soinekoak.

18. Apaizek erabakitzen zuten nor fusilatu

- **Erref:** ERR-020/047
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:17:00. **Bukatu:** 01:18:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aitaren osaba fusilatu egin zuten gerra garaian. Bilerak apaizek egiten zituzten, erabakitzeko nor fusilatu behar zen.

19. Franco etortzen zeneko banderen tamaina

- **Erref:** ERR-020/050
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:20:39. **Bukatu:** 01:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerra ostean, giroa asko aldatu zen Erreterian. Franco etortzen zen bakoitzean, Espainiako bandera jarri behar izaten zuten balkoietan: beraien etxean bandera txiki bat jartzen zuten balkoi handian. Erreterian karlista asko zegoen, eta nazionalak Bilbo hartu zutenean gerran, elizara joaten ziren ospatzera.

20. Gerra ostean, gazteak elkartzen hasi ziren pixkanaka

- **Erref:** ERR-020/051
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:21:52. **Bukatu:** 01:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Karlista baten alaba PNVko mutil batekin hasi zen ateratzen. Orduko anekdota kontatzen du. Gerra bukatutakoan, urte batzuetan giroa ez zen ona izan Erreterian, baina denborarekin, pixkanaka gazteak elkartzen hasi ziren.

21. Erramun Astibia osaba zuen

- **Erref:** ERR-020/057
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:29:27. **Bukatu:** 01:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Erramun Astibia olerkaria Mirenen osaba zen. Kaputxinoa zen. Tuberkulosiak

jota hil zen: gaixotu zenean, amak botikak bidaltzen zizkion, baina hari ez zitzaizkion iristen eta ez zioten uzten bisitarik izaten ere. Zergatik? Abertzalea zelako. Osaba Tuteran hil zen 33 urte zituela, baina Lizarran egon zen lehenago.

22. 1933an Erreterian izandako uholdeak

- **Erref:** ERR-020/059
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:31:28. **Bukatu:** 01:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

1933an, uholde handiak izan ziren Erreterian. Fanderiatik dena ikusten zuten urez estalita, izugarria izan zen. Gizon bat hil egin zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com